

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

2857

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 16koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari (EITE) buruzko arauak ematen dituen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduaren eranskina aldatzen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduak instalazio termikoaren ziurtagiriaren formatu bat ezarri zuen, II. eranskinean jaso zena.

Bestalde, industria-instalazioak abian jartzeko prozedura errazteko urriaren 30eko 229/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, eraikinetan 70 kW baino potentzia txikiagoko instalazio termikoak abian jartzen direnean beharrezkoa da Administrazioari horren berri ematea.

Aurreko paragrafoan adierazitako izapidea burutzeko, beharrezkoa da enpresa instalatzaileak ematen duen ziurtagiriaren gutxieneko edukia eguneratzea, besteak beste, titularraren identifikazioa, sorgailuaren kalifikazio energetikoa eta hotz-sorgailuen eraginkortasun energetikoko koefizientea (COP).

Bestalde, 238/2013 EDak Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko Erregelamendua onartzen duen 1027/2007 EDa aldatu zuen, besteak beste haren 24. artikulua –instalazio termikoak abian jartzeari buruzkoa– eta zehaztu aldaketak egiten direnean 70 kW baino potentzia txikiagoko bero- edo hotz-sorgailu bat ordezkatzeko ez dela beharrezkoa aldaketok Administrazioako organo eskudunean erregistratzea.

Aipatu 2008ko uztailaren 22ko Aginduaren azken xedapenetatik hirugarrenak industria-segurtasunaren eta energiaren arloan eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen dio agindu horrekin batera doazen eranskinak aldatzeko edo dokumentu berriak gehitzeko.

Erregelamendu-eskakizunen eguneratzea ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Instalazio termikoaren ziurtagiria.

Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduari (EITE) buruzko arauak ematen dituen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduaren 2. eranskina aldatzen da, instalazio termikoen ziurtagiriaren eredia ezartzen duena.

Ebazpen honen eranskinean ezartzen da enpresa instalatzaileek emandako instalazio termikoen gaineko ziurtagiriek izan behar duten gutxieneko edukia.

2.– Jarraibide hau izenpetzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 16a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.

2018ko maiatzaren 31, osteguna

ERANSKINA / ANEXO

INSTALAZIO TERMIKOAREN EGIAZTAGIRIA

CERTIFICADO DE INSTALACIÓN TÉRMICA

Enpresa instalatzailea / Empresa instaladora

Egiaztagiri-zk. N° Certificado

Izena/Nombre

IFZ/NIF

Helbidea/Dirección

Tel./Tfno.

Gaitutako enpresa-zk. / Empresa habilitada n.º

Instalatzailea/Instalador

NAN/DNI

Kategoria/Categoría

Txartel-zk. / N.º carné

EGIAZTATZEN DU

CERTIFICA

1.- Honako ezaugarri hauek dituen instalazioa egin dela eta aplikatu behar zaizkion indarreko legeriaren xedapen eta arategi guztiak betetzen dituela.

1.- Que la instalación cuyas características se indican a continuación, ha sido ejecutada y cumple con todas las disposiciones y normativas de la legislación vigente que le son de aplicación.

Instalazio mota / Tipo de instalación

 Berogailua/Calefacción OUB/ACS Klimatizazioa/Climatización Instalazio berria / Nueva instalación Moldaketa/Reforma: > 70 kW sorgailu aldaketa / Cambio generador > 70 kW 5 ÷ 70 kW-ko sorgailu aldaketa eta > % 25 / Cambio generador entre 5 ÷ 70 kW y con > 25% Pot. Instalazio edo sorgailu handitzea / Ampliación instalación o generadores (RITE art. 2.3.a y c) Energia aldak. edo berriztagarriak jartz. / Camb. energía o incorp. renovables (RITE art. 2.3.d) Eraikinaren erabileraren aldaketa / Cambio de uso de edificio (RITE art. 2.3.e)

TITULARRA/TITULAR

IFZ/NIF

Kalea/Calle

Zk./N.º

PK-Herria / CP-Localidad

INSTALAZIOAREN DATUAK / DATOS DE LA INSTALACIÓN

Kalea/Calle

Zk./N.º

PK-Herria / CP-Localidad

Lokal mota / Tipo de local

Erabiltzaile zk. / N.º de usuarios

Energia mota / Tipo de energía

Erreg. biltegia / Almacenamiento comb.

m³

Potentzia totala / Potencia total

kW

OUB. ren metaketa / Acumulación ACS

m³

Hustuketa mota / Tipo evacuación

Ek zk. N.º eq.	Sorgailu mota (berria edo aldatuta) Tipo de generador (nuevo o modificado)	Marka-Modeloa Marca-Modelo	Pot. termikoa Pot. térmica [kW]	Hozgarria (mota eta kg) Refrigerante (tipo y kg)
				kg
				kg
				kg
				kg

Oharrak edo, kasuan kasu, moldaketaren deskribapena / Observaciones, o en su caso, descripción de la reforma:

2.- EITA-ko (ED 1027/2007) IT-2-k agindutako probak egin direla, eta emaitza ona eman dutela.

2.- Que se han realizado con resultado aceptable las pruebas de la IT-2 del RITE (RD 1027/2007).

Sorgailuaren kalifikazio energetikoa / Calificación energética del generador

Sorgailuaren errendimenduaren balioa / Valor del rendimiento del generador (Pot. máx).

[%]

COPI/EER

3.- Ziurtagiriarekin batera, EITA-ko 24.8 art.-ak ezarritako titularrari emateko agiriak eranstean dira (ED 1027/2007).

3.- Que se acompaña a este certificado, para entregar al titular, la documentación indicada en el art. 24.8 del RITE (RD1027/2007).

	Data Fecha	Sinadura Firma	Zigilua Sello
--	----------------------	--------------------------	-------------------------